

EAE-KO LEHENDAKARIA. Azken bost egunean alderdiekin harremana izan du, eta banan-banan haiekin bildu nahi du

Ibarretxek EH ez beste alderdiekin biltzeko saioa egingo du berriro

PPk ez dela joango esan du eta PSEk bilera profitatuko du PP-PSOE itunaren berri emateko

Felix Iriarte | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak beste ahalegin bat egingo du alderdiekin, HBrekin izan ezik, batzen dituen puntuak dauden haztatzeko. Hala, haiekin biltzeko asmotan da, eta jada hitz egin du alderdietako ordezkariarekin. PPk esan du jada ez dela joanen, eta besteek bilera egingo dute.

Ibarretxek elkarriketaren beharra azpimarratzen segitzen du. Uste du ez dagoela beste ir-

tenbiderik. «Euskadin bi trenen talka saihesteko modu bakarrik elkarriketa politikoa da», adierazi zuen atzo Madrilen, Nazioarteko Bakearen Kulturaren jardunaldien barruan.

Lehendakariak, gainera, pentsatzen du alderdi politikoak nahasten ari direla bakoitzaren proiektu politikoa eta bake proiektua. «Bakoitzak bere kasa konpondu nahi du gatazka, ez dugu aniztasuna onartzen. Uste dugu bide bakar bat bakarrik dagoela, bakoitzarena, eta horrek bi trenen talka ekarriko du», ohartarazi du.

Alderdiekin izango duen elkarriketa prozesua «diskrezio osoz» egingo dela jakinarazi dute, bestalde.

PPk eta PSE-EEK egoera blokeatzen segitzen badute hauteskundeak deitzeko prest ere azaldu da lehendakaria, eta hori da, hain zuzen, PP eta PSOE



JUAN M. ESPINOSA / EFE

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria Emma Bonino Italiako eurodiputatuarekin Madrilen.

etengabe bilatzen ari direna. Izan ere, Carlos Iturgaitzek EAEn PPko lehendakariak eta Nicolas Redondo PSE-EEKo idazkari nagusiak berretsi dute hauteskundeak aurreratu behar dituela, ez dagoela beste biderik.

Iturgaitzek, gainera, jakinarazi du ez dela lehendakariarekin elkarriketatuko. Ibarretxek gonbita egin dio —guztiei egin die HBri izan ezik—, baina PP-

koak erantzun dio ez duela joateko asmorik. «Guk lehendakariarekin bakarrik hitz egingo dugu hauteskundeen aurrerapenari buruz. Lehendakariak, Jaurilaritzak eta EAJk HBrekin bat egiteko apustuari eusten badiot, Lizarran eta Udalbiltzan segitzen badute, PPk bereari eutsiko dio», adierazi zuen atzo Carlos Iturgaitzek Ibarretxeri erantzuteko.

Redondok hitz egingo du le-

hendakariarekin. Hala jakinarazi zuen PPk eta PSOEek indarkeriaren aurkako ituna adostu zutenean, eta bilera aprobetxatuko du gaur izenpetuko duten hitzarmenaren berri emateko.

Ibarretxek adierazi du ituna abertzaletasunaren aurkakoa dela, ez ETaren aurkakoa, baina PSE-EEKo idazkari nagusiak ez dela hala azaldu nahiko dio aste honetan izango duten elkarriketan.

'URRALBURU KASUA'. HBk epaiaren edukia Iruñera igortzeko eskatu du

Urralburu, Roldan eta Esparzari diru zuriketa egiteagatik zigorra ezarri diete Suitzan

I. Arrizurieta | IRUÑEA

Paul Perraudin epaileak Suitzan diru zuriketa egiteagatik zigorra ezarri die Gabriel Urralburu Nafarroako presidente ohiairi; Luis Roldan Foru Erkidegoan Espainiako Ordezkaririk ohiairi, eta Jorge Esparza Roldanen testaferreroari. Alta, Antonio Aragon, Urralbururen garaian Herrilaren kontseilaria, zigorrrik gabe utzi du «damutu egin zelako eta diru guztia itzuli zuelako».

Roldan kasuko *Nafarroako afera*-n egin dituen ikerketen ondorioz epai berria kaleratu du Perraudin epaile suizarrak. Suitzako justiziak diru zuriketa egiteagatik gehienez bost urteko espetxe zigorra ezarri dezake. Dena dela, kasua daraman epaileak diru zigorra besterik ez die jarri 1998an Nafarroako En-tzutegiak espetxe zigorrak ezarri zizkielako: Urralburuk 11 urtekoa du, Roldanek 12koa eta Esparzak 31koa. Bi azkenak espetxean daude eta Urralburuk, hilabetero, Iruñeko epaitegira



GARCIA CAMPOS / EFE
Paul Perraudin epailea.

joan du behar du. Aragoni dagokionez, 7 urteko zigorra jarri zion epaileak. *El País* egunkariak igandean kaleratutako Perraudinen epaiaren arabera, artean Suitzako banketxeetako kontuetan zituen 327 milioi pezetak Espainiara igortzeko agindua sinatu zuen Aragonek, eta epaileak «gaizki egindako-

az damutu» dela ulertu du eta ez dio zigorrrik jarri.

Perraudinek 1999an Espainiako Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzari, Aragonen diruaz gain, Urralburuk Suitzan zituen 149 milioi pezeta, eta Roldanen kasik 4 milioi pezeta bidali zizkion. Dena dela, Paesak Singapur-eko banketxeetan Roldanen izenean sartutako 1.700 milioi pezeta ezin izan zituen berreskuratu. Perraudinek dio akusatuei bahitutako diru gehiena «era ez egokian» lortu zutela frogatuta dagoenez, Espainiara bidali zuela, baina justiziaren kontrolatik «aske geratu den dirua» ere badela.

Hala, Andres Percas HBren izenean akusazio partikularra daraman abokatuak Erreguzko Batzordea biltzeko eskatu du, epaiaren kopia Iruñera igor dezaten eta bahitu ez duen dirua bahitzeko agindua eman dezan. Percazen ustez, akusatueta batek diru hori erabili badu, Kode Penalean zigortutako delitua egin du.

LAGURREAN

ETaren biktimak omenduko ditu Gasteizko Legebiltzarrak abenduaren 29an

PPk, PSE-EEK eta UAk bat egin dute indarkeriaren biktimak omentzeko. Legebiltzarrak ekitaldi bat antolatuko du abenduaren 29an, hiru talde horiek hala eskatu dutelako. Erabakia-ekin Legebiltzarrak, osoko bilkuran, onartu zuen ebazpena beteko da. Izan ere, azaroaren 3an egin zen eztabaidan legez besteko proposamen bat onartu zen PP, PSE-EE eta UArekin botoekin ETak hildakoak omentzeko. Hitzartu zuten, plaka bat jartzea eta omenaldi ekitaldi bat egitea. EAJk, EAK eta IUk ez zuten onartu jo eskaera, eta atzo ez zuten bileran parte hartu. PPk, PSE-EEK eta UAk egin duten eskaera bihar aztertuko du Legebiltzarreko Mahaiak. Ontzat joz gero, Juan Maria Atutxa harremanetan jarriko da Covite elkarteak kideekin plakan idatziko diren biktimen izenak zehazteko. Omenaldi ekitaldian talde parlamentario bakoitzak ordezkari bat izatea eskatu dute PPk, PSE-EEK eta UAk.

Arrieta presoak ukatu egin du Sestaon 1982an izandako hilketa batean parte hartu zuenik

Mikel Arrieta presoak ukatu egin zuen atzo 1982an Sestaon izandako atentatu batean parte hartu zuenik. Bertan bi polizia eta emakume bat hil ziren. Bere aurka egindako epaiketan, esan zuen 1982an ETako kide izateari utzi ziola. Fiskalak 147 urteko kartzela zigorra eskatu zuen.

Giza eskubideen aldeko Jaurilaritzaren kanpaina bertan behera uzteko eskatu du PPk

Eusko Jaurilaritzak bultzatu duen giza eskubideen aldeko kanpaina bertan behera uzteko eskatu zuen atzo PPko legebiltzarkide Carlos Urquijok, ez duelako ETaren jardura salatzen. Urquijoren ustez, «giza eskubideak errespetatzen ez dituztenak kanpainen aipatzea ez da logikoa».